

OHIKO BATZAR OROKORRA / Beasain / 2014ko azaroaren 8a

1.- 2014ko azaroaren 9ko Batzar Orokorraren akta onartzea, hala badagokio.

24 lagun elkartu dira, 16 IGEren ordezkari gisa, Batzar Orokorrean, 10:30ean, aurreikusitako gai zerrenda aztertzeko.

1. 2012ko azaroaren 10eko Ohiko Batzar Orokorraren akta onartzea, hala badagokio.

Aho batez onartzen da.

2.- Zuzendaritza Batzordearen Kudeaketa Txostena eta 2014-2015 ikasturterako Jarduera Proiektua.

2.1. Zuzendaritza Batzordearen jarduerak

Barne jarduerak: Zuzendaritza Batzordeak 4 bilera egin ditu.

Zonaldeko bilerak: 27 eskualde bilera egin dira, 2012ko irailean (%42), eta 2013ko urtarrilan (%35) eta 2013ko maiatzean (%38).

Kanpo jarduerak: 2012-2013 ikasturtean 289 bilera egin dira, 118 Gipuzkoako lurraldetik kanpo egin direla.

2.2. IGEekin ZERIKUSIA DUTEN GAIAK:

2.2.1. Zerbitzu eskaintza

2012-2013 ikasturtean, Federazioak honako zerbitzu hauek eskaini zizkien IGEei: Kontratuen kudeaketa, Liburuen salmenta, Aldizkaria, web orria, matrikulazio kanpaina, Aseguruak, Aholkularitza eta laguntza-jarduerak, Elkarleen Erregistroarekin eta diru-laguntzen eskariarekin gaiak, ..

2.2.2 FORMAZIO JARDUERAK

BAIKARAK bere bazkideei eskaintzen dizkien formazio ekintzen koordinazioa formazio zerbitzuak gauzatzen du. Zerbitzu horrek bideratzen ditu gurasoentzako formazio ekintzak, eta ekintza bakoitzari formazio estilo jakin bat ematen saiatzen da, gurasoen eskaeraren araberrako ezaugarri, helburu eta abarrak finkatuz Mintegi, tailer edo lansaio modura antolatutako programak izan dira, hainbat iraupenetakoak.

Honako hauek dira eskainitako programak: Guraso Eskolak eta Tailerrak, Jangelako begiraleen formazioa, Arlo ez-arautuan kulturarteko aniztasunari buruzko esku-hartzea bideratzeko plaza, eskola kirola..

2012-2013 ikasturtean guztira 541 saio eman dira.

2.2.3 BESTE GAI BATZUK.

Beste hainbat gaie informazioa eskaintzen da: EHIGE Konfederazioa, LOMCeri buruzko informazio kanpaina, Gipuzkoako Planifikazioan aldaketak, Euskadiko Eskola Kontseilua, Herritar etorkinen integrazio sozialerako foroaren hezkuntza batzordea, Gipuzkoako Kirol Kontseilua, Donostiako Kontseilu Soziala..

2.4 2013-2014 IKASTURTERAKO EKINTZE PROIEKTUA

2013-2014 ikasturteari begira, honako lehentasun hauek aurreikusten dira BAIKARARI dagokion lanean: IGEen estatutuak eguneratzen amaitzea; LOMCeri buruzko informazio kanpaina; Eskola Mapari jarraipena egiteko Gipuzkoako Lurraldean osatu den "Jarraipenerako Lurralde Batzordea"an parte hartzea; Gizarte sareak erabiltzea; IGEentzako zerbitzuak; Gipuzkoako Foru Ogasunean aurrean IGEek izan beharreko ordezkari fiskala izapidetzea; Eskola jangelak; Testu liburuen mailegu sistemaren jarraipena; Hezkuntza Sailak hezkuntza kudeaketako gastuak murrizteko hartutako neurrien jarraipena; "Baikara" aldizkaria; Foroetako partaidetza, EHIGE Konfederazioan diruzaintza ardura eramatea.

Aho batez onartzen da.

3.- 2012/13 KONTUEN EGOERA eta 2013/14rako AURREKONTUA

3.1 KONTUEN BALANTZEA 2011-09-01etik 2012-08-31ra (2011-12 IKASTURTEA)

2012-13 ikasturteko Kontuen Egoeraren azalpen laburra egin da: superabita izan da (215,37 €); diru sarreraren atalean 310.822,86 € zenbatu dira, eta gastuetan, 310.607,49 €

3.2 AURREKONTUA 2013-09-13etik 2014-08-31ra (2013-2014 IKASTURTEA)

2013-14 ikasturterako aurreikusitako Aurrekontuari dagokionez, 292.863,26 euroko zenbatekoa du gastuen eta diru sarreraren balantze orekatuak.

4. 2012-2013 IKASTURTERAKO KUOTAK

2013-2014 ikasturterako azken sei kurtsotan izan den kuota berdinarekin jarraitzea proposatzen da. Hau da 2,20 euro ikasle bakoitzeko

5. BAZKIDE BERRIAK ETA BAJAK

Honako IGE hauek elkartean sartzeko egindako eskaria onartzea proposatzen da:

- Irungo HIRUBIDE BHIko "BALEA" IGEa .
- Irungo IRAUN Haurreskolako "SEHASKA" IGEa.
- Berrobiko SAN ANDRES LHIko "EKINTZA" IGEa.

Honako IGE hauek elkartetik ateratzeko egindako eskaria onartzea proposatzen da:

- Aiako ANDATZA LHIko "ANDATZA" IGEa . Arrazoia: Andatza Eskola itxi egin dutelako.

6. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BERRITZEA

Zuzendaritza Batzordea honela osatuta egongo da:

- Usoa Urbietta (Bergara)
- Igor Lasa (Ordizia)
- Sebas Galdos (Errenteria)
- Gorka Garmendia (Urretxu)
- Imanol Andetxaga (Eskoriatza)
- Noemí Otegi (Elgoibar)
- Eskola Txikietako ordezkaria

Zuzendaritza Batzordea osatzeko bi juntakide falta dira. Hau dela eta hainbat Guraso Elkarteekin harremanetan jarriko dira, eta bereziki ordezkariak ez duten zonaldekoekin.

Zuzendaritza Batzordeko bilereretan Federazioko bi teknikari ere parte hartzen dute: Garbiñe Arrizabalaga (Formazio Arloko arduraduna) et Imanol Zubizarreta (Federazioko koordinatzailea)

7.- HEZKUNTZA ARLOAREN EGOERARI BURUZKO EZTABAIDA

Puntu honetan, eztabaida egin zen LOMCEren onarpen saihestezinari eta legeak Euskadin izango duen aplikazioari buruz. Informazioa eman zen azken orduko aldaketei buruz, Senatuaren izapidean Legean aldaketa batzuk egingo zirela aurreikusita, bereziki ezarpena 2 urtetik 3 urtera luzatzeko neurriari dagokionez. Ildo horretatik, jakinarazi da LOMCE 2014ko irailean ezartzen hasiko direla, aurreikusita zegoen moduan (2014-2015 ikasturtean), baina Lehen Hezkuntzako 1., 3. eta 5. mailetan soilik. 2015-2016 ikasturtean, berriz, 2., 4. eta 6. maileri egokituko zaie ezarpena; baita DHBko 1. eta 3. maileri, Batxilergoko 1. mailari eta hiru prestakuntza zikloetako 1. mailari ere.



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde

2016-2017 ikasturtean DBH, Batxilergo eta Prestakuntza Zikloetako gainerako mailetan aplikatuko da. Kanpo ebaluazioak, etapa bakoitzaren amaieran egingo direnak (Lehen Hezkuntzako 6. mailan, DBHko 4.ean eta Batxilergoko 2.ean), 2017ko ekainean izango dira, lehen aldiz, baina ez dute balio akademikorik izango; 2018ko ekainean izango dute DBHko eta Batxilergoko tituluak lortzeko balio akademikoa lehen aldiz. Selektibitatea 2017ko ekainean egingo da azken aldiz, eta 2018az geroztik, unibertsitate bakoitzak erabakiko du bere sarbide sistema, egoki irizten badio.

Batzarraren iritzian, LOMCE onartutakoan, Eusko Jaurlaritzak Euskadin LOMCE aplikatzeari buruz zer neurri hartzen dituen izango da hemendik aurrera koska. Berez, eta Hezkuntza Saila ematen ari den informazioen arabera, zaila ikusten da bederatzi hilabetean onartu ahal izatea 2014ko irailean Lege berria ezartzeko onartuta egon beharko litzatekeen araudi guztia. Izan ere, beharrezkoa da, lehenik eta behin, gobernu zentralak gutxieneko edukien dekretuak argitaratzea, erkidegoetako ezarpen dekretuak onartzea, ikastetxeen antolaketa, irakasleen prestakuntza, testu liburuak curriculum berrira egokitzea, etab.

Bestalde, Hezkuntza Sailak HEZIBERRI 2020 proiektua aurkeztu du, hezkuntza komunitatearen nahiz talde politikoen arteko adostasuna lortuta euskal curriculumaren esparru pedagogikoa eta curriculum dekretu berriak definitzeko eta, epe ertainera begira, Euskal Hezkuntza Legea onartzeko.

BAIKARAK kezka hartu du ekimen hori, ordea; izan ere, LOMCE Lege Organikoa eta nahitaez betetzekoa izanik, ez dugu ikusten Heziberri 2020 proiektuarekin nola aurre egin ahal izango zaion LOMCEri. Hori dela eta, beharrezkoa iruditzen zaigu Eusko Jaurlaritzak LOMCEren kontra jarrera sendoagoa hartzea eta zehaztea zer neurri hartzeko asmoa duen Euskadin lege berria ezar ez dadin, araudi propioaren garapenaren bidez haren aplikazioa mantsotzeaz haratago.

Horregatik, eta Bilbon urriaren 12an egindako manifestazioaren ondoren gai honi aurre egiteko hainbat estrategia daudela ikusirik, Batzarrek erabaki du EHIGE Konfederazioari jakinaraztea babesa ematen diela LOMCEren kontrako mobilizazioei eta hezkuntza arloko murrizketa politikaren salaketari lehentasuna emateko antolatutako ekimenei; bide horretatik, etorkizuneko irtenbidea hezkuntza sistema propioa izango dela ahaztu gabe bada ere, hezkuntza komunitatearen mobilizazioa lortzen saiatzeko eskatzen du, familiena bereziki.

8.- GALDERAK ETA OHARRAK

Zarauzko Orokieta Herri Eskolako ordezkariak jakinarazi duenez, abian jarri dute HAUSPOA izeneko esperientzia, Hezkuntza Sailak sortua. Esperientzia horren arabera, goizeko ordutegian biltzen dira eskola ordu guztiak, eta askotariko jarduerak antolatzen dira arratsaldeko ordutegirako. Dagoeneko autonomia erkidegoko 14 ikastetxetan ari dira ordutegi hori aplikatzen, baina bakarra da Gipuzkoakoa: Zarauzko Lizardi Institutua, hain zuzen ere. Orokieta ordezkariak adierazi duenez, familiak kezkatuta daude jangela zerbitzuaren murrizketa dela eta. Eztabaidan parte hartu du, halaber, Errenteriako Koldo Mitxelena Institutuko ordezkari batek, bertatik bertara ezagutzen baitu proiektua, Lizardi BHiko hezkuntza komunitateko kidea delako. Ordezkari horrek azaldu duenez, hilabete eskas da ekimena abian jarri zela, eta goiz da ebaluazioa egiteko, baina ez omen dute kexarik jaso institutuan. Arratsaldeko jardueretan 150 ikasle inguruk parte hartzen dute, eta askotariko eskaintza egiten zaie.

BAIKARAREN koordinatzaileak adierazi du EHIGEk interes berezia duela HAUSPOA proiektuarekiko; izan ere, Federazioa iritzi horretakoa ez den arren, batzuen ustez jardunaldi jarraitua ezartzeko ahalegina da ekimen hori. Horregatik, ikasturtea amaitu aurretik proiektu pilotu horiei buruzko informazioa eskatuko zaie Hezkuntza Sailari nahiz ikastetxeei berei, egitasmoaren abantailak eta eragozpenak aztertzeko. Era berean, jakinarazi da azaroaren 16an, larunbatean, Gasteizen egingo den IGEen Jardunbide Egokien Jardunaldian hitzaldi bat emango dela jardunaldi jarraitua-etenari gairi buruz.

Ez dagoenez beste aztergairik, amaitutzat eman da Batzarra, 12:40an.



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde



2.- Zuzendaritza Batzordearen Kudeaketa Txostena eta 2014-2015 ikasturterako Jarduera Proiektua.

BAIKARAK 2013-2014 ikasturtean egindako lanaren funtsa Federazioko kide diren 157 IGEei informazioa, aholkularitza eta laguntza eskaintzea izan da 2013-2014 ikasturtean ondoren aipatzen diren jarduera hauek bideratu dira, Zuzendaritza Batzordeak prestatu eta 2013ko azaroan egindako Batzarrak onartutako Planaren arabera

2.1. Zuzendaritza Batzordearen jarduerak

Barne jarduerak: Zuzendaritza Batzordeak ohiko bost bilera egin ditu, eta Komunikazio Plan berria eztabaidatzeko besete ez ohiko bi bilera.

Zonaldeko bilerak: 27 eskualde bilera egin dira, 2013ko irailean (%45) , eta 2014ko urtarrilan (%41) eta 2014ko maiatzean (%48).

Kanpo jarduerak: 2013-2014 ikasturtean 261 bilera egin dira , honela banatuak:

- IGEekin: 139 bilera, horietako 27, eskualdekoak.
- Ehige Konfederazioa: 14 bilera.
- Eusko Jaurlaritza: 16 bilera
- Udalak/Foru Aldundia: 12 bilera
- Eskola Publikoaren Jaia: 3 bilera
- Jardunaldiak eta mintegiak: 25 bilera
- Euskadiko Eskola Kontseilua: 16 bilera
- Bestelakoak: 36 bilera

Nabarmenezko datua da bilera horietako 76 Gipuzkoako lurraldetik kanpo egin direla.

2.2. IGEekin ZERIKUSIA DUTEN GAIAK:

2.2.1. Zerbitzu eskaintza

2013-2014 ikasturtean, Federazioak honako zerbitzu hauek eskaini zizkien IGEei:

- **Kontratuen kudeaketa:** Batez beste, 237 kontratau baino gehiago kudeatu ditugu hilean. IGE eta ikastetxeek kudeatzen dituzten zerbitzuen artean, honako hauek dira, nagusiki, langileak kontratatzeke premia dakartenak: zaintza, kiroletako koordinatzaileak, eskola orduz kanpoko jarduerak... PROA programarako begiraleak ere kontratu behar izaten dira.
- **Liburuen salmenta:** 2013/2014 ikasturtean liburu eta eskola materialen erosketa kudeatu dugu, Gipuzkoako 38 ikastetxerentzat.
- **Aldizkaria:** 2013-2014 ikasturtean "Baikara" aldizkariaren 3 zenbaki kalaretu ditugu eta 28.000 ale elebiduneko argitalpena egiten da
- **Web orria (www.baikara.org):** Ikasturtean zehar, atal berriak gehitu zaizkio webguneari: facebook, twitter...
- **Matrikulazio kanpaina:** 2014ko otsailean egin zen. Baikararen publizitatea sartu da Gipuzkoako 30 ikastetxeren propagandan, Donostiako 18 ikastetxeen eta Debagoieneko Goieskolako 12 ikastetxeen propaganda bateratuan.

- **Boluntarioentzako aseguru:** 2013-14 ikasturtean boluntarioentzako 156 aseguru egin dira.
- **Ikasleentzako eskolako istripu aseguru:** 2013-2014 ikasturtean, 8 ikastetxetako 1.308 ikaslek egin dute aseguru hori.
- **Aholkularitza eta laguntza jarduerak.**

BAIKARAKO kide diren IGEentzako aholkularitzako eta laguntzako jarduera espezifikoak sartzen dira atal honetan. IGEek IGE gisa dituzten funtzioak betetzeko eta IGEek parte hartzen duten kudeaketa eta parte-hartze sektorialeko beste organo batzuetan duten zeregina betetzeko laguntza eta orientazio gisa har daitezke.

Hiru programa hartzen ditu arlo honek bere baitan: IGEen dinamizatorako egitaraua, Orientazio eta aholkularitza egitaraua eta Informazio egitaraua

2013/2014 ikasturtean, 4 IGE baino gehiagoren estatutuak aztertu eta aldaketa proposamenak bideratu ditugu. 2014-2015 ikasturtean, falta diren 3 IGEen estatutuak eguneratzeko asmoa dugu eta horrela eginkizun honekin bukatu.

- **Elkarteen Erregistroarekin eta diru laguntzen eskariarekin zerikusia duten gaiak.**

Hiru atal dira nabarmentzekoak:

- Elkarteen Erregistroan Zuzendaritza Batzordeen osaera egunera dezaten IGEekin egin beharreko kontzientziario lana. Izapide horrek erraza dirudi, baina IGE askok huts egin ohi dute betebeharrak. Izan ere, etengabeko aldaketak gertatu ohi dira Zuzendaritza Batzordearen osaeran (bi urtez behin osorik aldatu ohi dituzte, oro har), eta kide berriek ez dute jakiten eguneratze hori egin beharrekoa dela. Egoera horren ondorioz, Federazioak berak hartzen du aurrea auzi honetan eta berak egin ohi ditu Zuzendaritza Batzordeen osaera eguneratzeko izapideak eta gestioak, Elkarteen Erregistroaren aurrean. Hala, 2013/2014 ikasturtean zehar, Zuzendaritza Batzordeen 62 aldaketari buruzko izapideak egin genituen Elkarteen Erregistroan.

IGEentzako diru-laguntzen kudeaketa eta izapideak, bereziki, Hezkuntza Sailak eta Donostiako Udalak banatzen dituzten laguntzei dagozkienak. 2014rako diru laguntzen eskariak 2014ko ekaina/uztailan atera ziren. BAIKARAK 112 laguntza eskari izapidetu ditu; hau, da, Federazioko kide diren IGE guztien %76enak.

- IGEek zerga betebeharrak eta, bereziki, Elkarteen zergari dagozkion betebeharrak betetzeko laguntza. IGEak, irabazi asmorik gabeko elkarteak izan arren, behartuta daude urtero Elkarte Zergaren aitortzea egitera. Traidizioz, IGE gehienek ez zuten betebeharrak bete izan, baina horrek ez zuen inolako ondorioz izaten beren funtzionamenduan. Diru-laguntza publikoak banatzeko araua aldatu egin zuten, ordea, eta, harrezkero, gero eta gehiagotan gertatzen ari da erakunde publikoak eta, batez ere, udalek, zergen ordainketa eguneratuta dagoela adierazten duen egiaztagiria aurkezteko baldintza ezartzea, laguntzak emateko. Eta, jakina, IGEek Elkarte Zergaren aitortzea egiteko ohiturarik ez dutenez, zailtasunak sortzen ari dira laguntza publikoak eskuratzeko garaian, orain artean ez bezala. Ildo horretatik, Federazioa IGEei aholkularitza eskaintzen ari zaie, egin beharreko izapideak eginda, Foru Ogasunean eskariak aurkezteko.

Gainera, 2008az geroztik, telematika bidez besterik ezin dira aurkeztu, eta horretarako, gako elektronikoa eskuratu beharra dago Foru Ogasunean. Orain arte 59 IGE tramitatu dute ordezkaritza elektronikoa.

- Hezkuntza arloko informazioa, dokumentazioa eta baliabideak.

2001-2002 ikasturtetik hona, zabalik da Hezkuntza Informazio, Dokumentazio eta Baliabideen Zentroa. guraso, IGE eta Ikastetxe guztiei eskaintzen dizkie bere zerbitzuak.

Honako kontsulta baliabide hauek aurki ditzake erabiltzaileak bertan:

- Buletinak eta informazio ofiziala.
- Ekintzetarako materiala eta beste elkarte eta ikastetxe batzuenak.
- Balioetan oinarrituriko hezkuntza, prebentzioa...
- Heziketa behar bereziak.
- Beste ikastetxe batzuen informazioa eta estekak.
- Erakundeen informazioa.
- Hezkuntza zerbitzuei buruzko informazioa.
- Hemeroteka.
- Hezkuntza orientazioa eta orientazio profesionala.
- Elkarte eta baliabide interesgarriak.
- Irakasleak.
- Informatika.
- Bestelakoak.

Ikasturte honetan kontsulta ugari egin dituzte baliabideei eta dokumentazioari buruz, gehienak Federazioko kide diren IGEetako kideek; kontsulta horien %93 urrunekoak izan dira (telefonoz, e-mailez,...) ez bertatik bertarakoak.

2.2.2 FORMAZIO JARDUERAK

BAIKARAK bere bazkideei eskaintzen dizkien formazio ekintzen koordinazioa formazio zerbitzuak gauzatzen du. Zerbitzu horrek bideratzen ditu gurasoentzako formazio ekintzak, eta ekintza bakoitzari formazio estilo jakin bat ematen saiatzen da, gurasoen eskaeraren araberrako ezaugarri, helburu eta abarrak finkatuz. Mintegi, tailer edo lansaio modura antolatutako programak izan dira, hainbat iraupenetakoak.

Honako hauek dira eskainitako programak:

2.2.2.1 GURASO ESKOLAK ETA TAILERRAK

2013-2014 ikasturtean zehar, 132 prestakuntza saio egin dira Gipuzkoako 41 ikastetxetan. Horrez gainera, beste 20 prestakuntza saio antolatu dira Eibar, Villabona eta Oñatiko udalekin lankidetzan.

2.2.2.2 JANGELAKO BEGIRALEEN FORMAZIOA:

Eskola jangeletako begiraleak trebatzeko 5 ikastetxetan 13 saio egin dira.



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde



2.2.2.3 ARLO EZ-ARAUTUAN KULTURARTEKO ANIZTASUNARI BURUZKO ESKU-HARTZEA BIDERATZEKO PLANA

Formazio hau ikasleentzako antolatua da, bereziki, eta honako programa hauek landu dira:

1. JOLASEAN ELKAR EZAGUTU: 48 saio egin dira.
2. JOLASEAN ERABAKIAK HARTU: 30 saio egin dira.
3. JOLASEAN EGINEZ ERRONKEI AURRE EGIN: 120 saio egin dira.
4. JOLASEAN ELKAR ONARTZEN DUGU: 25 saio egin dira.
5. JOLASEAN MUSIKAZ GOZATZEN DUGU: 27 saio egin dira.
6. SARE SOZIALEKIN JOLASEAN: 96 saio egin dira
7. KULTUR ARTEAN ELKAR BIZI: 2 saio egin dira.
8. JARRAIPEN PROGRAMA: 7 saio gin dira.
9. BESTE PROGRAMA BATZUK: 6 saio egin dira
10. IRASKALEEKIN BILERAK: 60 ordu

Guztira: 361 saio

2.3 BESTE GAI BATZUK.

- EHIGEko Zuzendaritza Batzordea: LOMCERI EZ kanpaina; Heziberri 2020 egitasmoa; Eskolaz kanpoko eta eskola kiroleko begireleen egoera; "EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO" Foroa, Jangelak, Eskola garraioa, Obrak, Testu liburuak, Laikotasuna, Matrikulazio Kanpaina, Guraso Elkartearen Hezkuntza-Jarduera onen IV. Lehiaketa, Eskola Txikiak,...
- LOMCeri buruzko informazio kanpaina: 2013-2014 ikasturtean Gipuzkoan zehar 39 hitzaldi eskaini dira, gehienak Guraso Elkarteak antolatuta.
- GIPUZKOAKO PLANIFIKAZIOAN ALDAKETAK (EIBAR, IRUN, LASARTE)
- EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA
- HERRITAR ETORKINEN INTEGRAZIO SOZIALERAKO FOROAREN HEZKUNTZA BATZORDEA.
- GIPUZKOAKO KIROL KONTSEILUA.
- DONOSTIAKO KONTSEILU SOZIALA.

2.4 2014-2015 IKASTURTERAKO EKINTZE PROIEKTUA

2014-2015 ikasturteari begira, honako lehentasun hauek aurreikusten dira BAIKARARI dagokion:

- IGEen estatutuak eguneratzen amaitzea.

Eskola orduz kanpoko jardueretako begiraleen auzia. Lan kontratuen kopuruari aurre egitea; izan ere, lan kontratuen kopurua igo egingo dela aurreikusten da, jarduera horietan IGEekin lan egiten duten begiraleen lan arloko egoera erregulatu behar dela-eta. Puntu honetan, IGEei gogorarazi zaie komeni dela erregularizatzea IGEak antolatutako jardueretanlankide edo partaide gisa aritzen diren pertsonen egoera, baldin eta laguntza horren truke inolako ordain ekonomikorik jasotzen badute. Legezko arazorik ez izateko eta, are, Lan Ikuskaritzaren isun larririk ez jasotzeko, garrantzizkoa da pertsona horiek legez



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde

babestuta egotea, bai lan kontratu baten bidez, bai zerbitzuak emateko kontratu baten bidez, eta emandako zerbitzuengatik fakturak ematea. Kasu batzuetan, egoera jakinetan, pertsona horiek langile boluntario bezala aritzea onar daiteke. Nolanahi ere, IGEei gomendatzen zaie Federazioarekin harremanetan jar daitezela, gai hau aztertzeko.

- Eskola Mapari jarraipena egiteko Gipuzkoako Lurraldean osatu den "Jarraipenerako Lurralde Batzordea"an parte hartzea
- Komunikazio Plan berria martxan jkarri. Gizarte sareak erabiltzea, IGEekiko komunikazioa hobetzeko (bloga, facebook...), eta webgunea tresna berriez hornitzea, IGEek eta familiek, oro har, errazago elkarreragin ahal izan dezaten Federazioarekin.
- IGEentzako zerbitzuak: aholkularitza, informazioa, liburu salmenta, kontratuak, aseguruak, ordezkariak.
- Gipuzkoako Foru Ogasunean aurrean IGEek izan beharreko ordezkariak fiskala izapidetzea
- "Baikara" aldizkaria: ikasturtean, hiru zenbaki argitaratuko dira, azaroan, martxoan eta maiatzean.
- Aurrekontu murrizketak gorabehera, gaur egungo prestakuntza eskaintzari eustea, eta, ahal den heinean, eskaintza hori zabaltzea.
- Foroetako partaidetza: "Immigrazio Foroaren Hezkuntza Batzordea", "Euskadiko Eskola Kontseilua", "Donostiako Gizarte Kontseilua", "Donostiako Udaleko Euskararen Aholku Batzordea" ...
- **EHIGE** Konfederazioko Zuzendaritzan Batzordean partehartzea: 2014-2015 ikasturterako lehentasunak hauek izango dira:
 - "LOMCEri EZ GUK Gure eskola" kanpainarekin jarraitu.
 - Eskola Kontseiluetarako hauteskundeak.
 - Eskola jangelak: zeharkako kudeaketa duten esperientzia pilotuen jarraipena egitea eta Eusko Jaurlaritzari eskatzea baimena eman dezan beste ikastetxe batzuetara hedatzeko. Negoziatzen jarriatzea zuzeneko kudeaketa duten jangeletan hobekuntzak egiteko.
 - Hezkuntza Sailak hezkuntza kudeaketako gastuak murrizteko hartutako neurrien jarraipena: irakasleen ordezkariak, eskola garraioaren ibilbidea, eskoletako eraikinetan egin beharreko inbertsioak, dirulaguntzetan
 - Testu liburuaren mailegu sistemaren jarraipena. Arreta berezia ematea puntu honi; izan ere, curriculum berria ezarriko dela eta (LOMCE edo Heziberri 2020) gaur egungo testu liburuak ordezkatu egingo direla aurreikusten da. Horrekin batera, eskolako materialak digitalizatzeko Hezkuntza Sailaren ekimenari jarraipena egitea.
 - Beste gai batzuk: IGEen Jardunbide Egokien V. Lehiaketa antolatu; matrikulazio kanpaina, eskola mapa, laiktasuna,...
- Euskal Eskola Publikoaren 24. Jaia: 2015eko ekainak 7an Elgoibarren, eta Eskola Txikien festa (2015eko ekainak 14an, Gabirian).



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde

3.- 2013/14 KONTUEN EGOERA eta 2014/15erako AURREKONTUA

3.1 KONTUEN BALANTZEA 2013-09-01etik 2014-08-31ra (2013-14 IKASTURTEA)

DIRU SARRERAK

• EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZA	58.585,41
• GURASO ELKARTEEN BAZKIDE KUOTAK	102.594,80
• ESKEINITAKO ZERBITZUAK / BATZUK	68.129,81
- Kontratuen kudeaketa	57.888,00
- Liburuen kudeaketa	7.949,82
- Aseguruuen kudeaketa	1.845,11
- Finantzak	189,31
- Beste sarrera batzuk	257,57
• EGITASMOAK	66.170,30
- Baikara aldizkaria	10.849,52
- Formazioa / Kulturantzitasuna	55.320,78

DIRU SARRERAK OROTARA 295.480,32

GASTUAK

• PERTSONALEKO GASTUAK	154.975,61
- Langileak	150.567,53
- Prebentzioa / Formazioa	4.408,08
• EHIGE KONFEDFERAZIOA	2.813,00
• OROKORRAK	45.277,45
- Alokairuak eta kanonak	6.774,64
- Besteri eskatutako lanak	2.836,69
- Garraioak eta posta	2.536,95
- Aseguruak	4.409,92
- Publizitatea eta harremanak	2.643,60
- Hornidurak	7.602,57
- Ordezkaritza	10.623,06
- Bulegoko materiala	800,40
- Zergak	265,67
- Harpidetzak-Liburutegia	1.364,50
- Zerbitzuak eta fotokopiak	927,48
- Finantzak	349,20
- Aholkularitza juridikoa	2.623,46
- LOMCEri Ez kanpaina	1.446,31
- Batzuk	73,00
• EGITASMOAK	93.095,05
- Baikara aldizkaria	19.681,15
- Formazioa/Kulturantzitasuna	73.413,90

GASTUAK OROTARA 296.161,11

DEFICITA: 680,79



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde



3.2 AURREKONTUA 2014-09-13etik 2015-08-31ra (2014-2015 IKASTURTEA)

DIRU SARRERAK

- Funtzionamendu gastuentzako Hezkuntza Saileko dirulaguntzak: 56.800,00 (% 19,14)
- FORMAZIO Egitasmorako dirulaguntzak: 15.900,00 (% 5,36)
 - Eusko Jaurlaritzako Inmigratio Zuzendaritza: 7.800,00
 - Donostiako Udala: 8.100,00
- BAIKARA ALDIZKARIA egitasmorako dirulaguntzak: 14.000,00 (% 4,72)
 - Donostiako Udala: 8.000,00
 - Publizitatea: 6.000,00

Kanpoko diru-sarrerak: 86.700,00 (% 29,22)

- Bazkideen kuotak: 102.000,00 (%34,38)
- Zerbitzuak emateagatik sarrerak: 108.000,00 (%36,40)

Berezko diru-sarrerak: 210.000,00 (%70,78)

OHIKO SARRERAK GUZTIRA : 296.700,00 €

GASTUAK

- Pertsonal gastuak: 143.700,00 (%48,43)
- Funtzionamendu gastuak: 68.000,00 (%22,91)
- FORMAZIO egitasmoa: 65.200,00 (%21,98)
- BAIKARA ALDIZKARIA: 19.800,00 (%6,68)

OHIKO GASTUAK GUZTIRA: 296.700,00 €

4. 2014-2015 IKASTURTERAKO KUOTAK

2014-2015 ikasturterako azken sei kurtsotan izan den kuota berdinarekin jarraitzea proposatzen da. Hau da 2,20 euro ikasle bakoitzeko.



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde



5. BAZKIDE BERRIAK ETA BAJAK

Honako IGE hauek elkartean sartzeko egindako eskaria onartzea proposatzen da:

- Asteasuko PELLO ERROTA LHIko "MURGIL" IGEa (Larraulgo gelak) .
- Soraluze SORALUZE BHIKO "KEIXETA" IGEa.
- Ezkio-Itxasoko HHIko "GANBARA" IGEa.

Honako IGE hauek elkartetik ateratzeko egindako eskaria onartzea proposatzen da:

- Errenteriako BERAUN-BERRI LHIko "GUNE BERRI" IGEa . Arrazoia: Fusioa Langaitzekin.
- Beasaingo LOINAZPE BHIko "INDARTZE" IGEa. Arrazoia: fusioa Beasain BHIko IGEarekin

6. FEDERAZIOKO ESTATUTUAK EGUNERATZEA

Federazioko estatutuetan aldaketa hauek proposatzen dira:

- 3. artikuluan (Jarduerak): g) puntuan esaldi hau gehitu:
Ikasleen Guraso Elkartei zerbitzu hauek emateko, Baikara Federazioak behar diren langile adituak kontratatuko ditu bere aldetik, Ikasleen Guraso Elkarteek beharrezko irizten dioten jarduerak antolatu eta aurrera atera ditzaten
- 10. artikulua (Batzar Orokorren zereginak eta eskumenak): 10. Puntu bat esaldi hauekin gehituz:
Zuzendaritza Batzordeari ahalmena ematea behar diren giza baliabideak eta baliagai materialak kontratatzeko, IGEek, bere helburu sozialen konplimenduan, antolatzen dituzten jarduerak aurrera atera ditzaten.

16. artikuluan (Zuzendaritza Batzordearen osaera): erredakzio berria:

Zuzendaritza Batzordea honako kide hauek osatuko dute: Presidenteak, Presidenteordeak, Idazkariak, Diruzainak eta Batzordekideek (bi eta hamar artean izango dira).

- Azken buruko xedapen berri bat gehitu:
Estatutu hauetan aurreikusitako jarduerak aurrera ateratzeko eta lana errazteko, Baikara Federazioak, Batzar Nagusiaren onspenarekin, kontratuak egin ahal izango ditu pertsonekin, enpresekin eta entitate publiko eta pribatuekin. Horretarako, Zuzendaritza Batzordeak kontratuak egiteko prozedurak zehaztuko ditu, eta behar izango diren baliabideak ere finkatu ahal izango du.

Proposamena aho batez onartzen da.

7. GALDERAK ETA OHARRAK

EHIGE, SAREANE eta BIHE elkarteak "LOMCErik EZ Euskal Eskola Publikoan" adostutako dokumentua aukeztu egiten da.

Ez dagoenez beste aztergairik, 11.30etan amaitutzat eman da batzarra.